

## BEZEROEN SEGMENTAZIOA

**Brick-plastic**-eko bezeroa ezin da izan edonolako bezeroa, hau da, bezero espezifiko izango da.

Proiektuaren talde sortzaileak gizarte ongizatean laguntza bat ematea du printzipio gisa, hori dela eta ezingo zitzaion edonori saldu produktua, ez delako izango berari bideratutako produktu bat. Bezero espezifikoak ditugunez, gure merkatuko zatiaren azterketa bat eta bezeroen nahi eta beharrak jakingu ditugu;

- Bezeroen perfila herrialde azpigaratuei laguntzen dieten ONG-ak dira batez ere, herrialde horien garapenak aurrera egiteko.

Bestalde, herrialdeetako gobernuak herrialdeak garatzeko beharra izango balute; herrialdea bera bezero moduan hartuko genuke.



- Aurreko guztia dela eta, ez genioke eskainiko azkenengo produktuari erabilera “normal” bat emango dioten enpresa edo erakundeei.
- Enpresa honen egitasmo eta produktuen salmentak bezeroez gain onuradunak izango lituzke:



Herrialde azpigaratuak izango litzateke onuradun nagusiak, beraien herrien aurrerapenerako onura izango da eta herritarrentzat ere onura edukiko du beraien bizitzetan.

ONG-ak ere onuradunak izango litzateke neurri txikiago batean; beraien presentzia areagotu egingo zelako herrialde azpigaratueetan eta beste herrialde batzuetara zabalduko litzateke euren lana.